

## Gizartea -

### Arrantzaleek sare pelagikoen arriskuez ohartarazi dute

**Bizkaiko eta Gipuzkoako kofradiak Oceana fundazioarekin elkarlanean arituko dira hemendik aurrera. Nazioarteko erakundea itsasoa ikertzeaz eta babesteaz arduratzen da. Biek ala biek arrantza tradizionala sustatzea nahi dute, «sare pelagikoek espezieak arriskuan jartzen dituztelako eta itsasoko hondoak gehiegi ustiatzen dituztelako» Arrantzaleek sare pelagikoen arriskuez ohartarazi dute**

#### HONDARRIBIA

Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Elkarteko presidente Esteban Olaizola pozik agertu zen atzo Hondarrribian egindako prentsaurrekoan. Izan ere, Olaizolak azaldu zuen: «Oceana erakundeak arrantzaleek baino erraztasun gehiago ditu arrantza pelagikoari amaiera emateko». Halaber, beharrezkotzat jo zuen ohiko arrantzari eustea, epe luzera arrantza bermatzea nahi bada. Oceanak eta arrantzaleek elkarrekin lan egingo dute, bi helbururekin: alde batetik, espezie nagusiak ez desagertzea, eta, beste alde batetik, itsasoko hondoko aberastasun biologikoa zaintzea. «Orain lan egin behar dugu, ondorengo belaunaldiek arrantzatzeko aukera izan dezaten», azaldu zuen Olaizolak.

Halaber, Xavier Pastor Oceana fundazioko Europako presidenteordeak gogorarazi zuen oraingoa ez dela lehenbiziko kanpaina: «Orain urte batzuk bolanten aurkako kanpaina aurrera eraman genuen, baita irabazi ere». Orain arte ez da Kantauriko kofradien eta Oceanaren artean harreman sakonik egon, baina Xavier Pastorek adierazi zuen elkarrekin lan egingo dutela: «Arrantzaleek daramaten borrokarekin bat egiten dugulako: arrantza iraunkorraren alde gaude eta arrantza industrialaren aurka». Ildo horretan gehitu zuen Kantabrikoko kofradiek «laguntza handia» behar dutela.

Oceanak hainbat puntutan adostu nahi du Gipuzkoako eta Bizkaiko arrantzaleekin. Alde batetik, arraste arrantzaren jarduera gutxitu edo bertan behera geratzea nahiko luke nazioarteko erakundeak, baita kaltetuak izan diren soberakin guztiak biziberritu ere.

Bestetik, arrantza kuotetan sartzea nahigabe harrapatu dituzten arrainen kopurua. Hondoko sareek eta sare pelagikoek arrantzatu nahi ez dituzten espezieak ere harrapatzen dituzte. Euskal arrantzaleek erabiltzen dituzten sareak, ordea, selektiboak dira.

Bestalde, atzoko prentsaurrekoak hedabide dezenteren arreta bereganatu zuen, besteak beste, Ted Danson aktore amerikarrak parte hartu zuelako. Dansonek "Cheers" telesailean tabernako jabearena egiten zuen, eta gaur egun Oceanako Zuzendaritza Batzordeko kideetako bat da. Gipuzkoako eta Bizkaiko kofradiek behin baino gehiagotan salatu dute arrantzaren egoera «gero eta larriago» dela. Izan ere, arraste itsasontziek itsasoa gehiegi ustiatzen dute, bai sare pelagikoen bidez, baita hondoko sareen bidez ere. Horregatik, espezie batzuk arriskuan jartzeaz gainera (legatza, bakailaoa eta zigala, besteak beste), hondoak ere txikitzen dituzte. Azken azterketen arabera, antxoa, berdela eta hegaluze kopuruak nabarmen egin du behera. Kontuan izan espezie horiek euskal arrantzaleen ogibide nagusiak direla. Gero eta arrain gutxiago munduko itsasoetan

Atzoko prentsaurrekoan, Oceanako Zuzendaritza Batzordeko kide Daniel Paulyk azaldu zuen 80ko hamarkadaren erdian nazioarteko komunitatea ohartu zela arrantza gutxitzen ari zela. Hasieran, nazioarteak Txinako Herri Errepublikari egotzi zion beherakada, «baina gero frogatu zuten horrela ez zela. Izan ere, zientifikoki frogatu da arrantza industrialak hondatzen dituela itsasoko hondoak». Horregatik, beharrezkotzat jo zuen arrantzaleen eta zientzialarien arteko elkarlana. -

Baigorri Argitaletxea S.A Gipuzkoa: Portuetxe, 23-2.a/20018 Donostia  
Tel 943 316999/FAX 943 316998